

BEHAKETA

SOKA TIRA



IKASLEA: Manex Mailharin Ortigosa
IKASGAIA: Errituak eta sinesmenak

1. SARRERA: Soka Tira


Nik behatutakoa kirol jarduera bat da, soka tira, hain zuzen ere; bi talde elkarren parean jarrita, soka bati helduz aurkako taldea gure eremura ekartzea helburu duen jarduera kolektiboa. Euskal kulturaren baitan, *herri kirol* gisa sailkatzen diren kirolen artean kokatzen da sokatira, industrializazioaren aurretik landan eskuz egiten ziren lanak ekartzen baitituzte gogora. Soka tiraren kasuan, gauza pisutsuen garraioan dago jatorria: moztutako zuhaitzak, harri astunak...

Sokatiraren baitan zenbait modalitate ezberdin daude, hiru aldagai ezberdinen arabera. Aldagai nagusia lurzorua da. Lurzoruari dagokionez, bi modalitate ezberdintzen dira: lehena, forma tradizionalari hobekien jarraitzen diona, lur gaineko sokatira eta bigarrena, modernizatuagoa, goma gainekoa. Aldagain nagusia da bi modalitateen arteko aldea nahiko handia baita eta oso jende gutxi baitago bietan trebea dena. Bigarrenean kautxozko taula batzuk jartzen dira ilaran eta bertan jartzen dira lehiakideak. Hau da nik behatu dudana. Bigarren aldagaia partaideei kopurua da, hemen ere bi modalitate nagusitzen direlarik, goma gaineko soka tiran behintzat: 8x8koa eta 4x4koa. Lehenean zortzi partaidek tiratzen dute talde bakoitzean eta bigarrena lauk; azken hau da niri behatzea egokitu zaidana, data hauetan hori ospatu baita. Azken aldagaian pisuarena da; izan ere, kategoria bakoitzean gehieneko pisu ezberdineko azpi kategoriak daude: 8x8 680kg, 8x8 640kg, 8x8 600kg, 8x8 560kg; 4x4 320kg, 4x4 300kg... Amaitzeko, soka tiran gehienetan sexuak banatzen dira, zenbait txapelketa mixto egoten diren arren.

Kirol guztiek bezala, honek ere lehia jartzen du erdigunean eta zenbait elementu sakratu daude horren inguruan jiraka, lehia hori bermatzeko: kolektiboki lortu beharreko pisua, lehiatzeko jantziak, oihuak... Horietako batzuk aztertuko ditugu behaketa batetik abiatuta.

2. BEHAKETAREN KOKAPENA

Azaroaren 26tik abenduaren 17ra bitarte ospatu zen, Euskal Herriko 4x4ko goma gaineko sokatira txapelketa. Egun berdinetan eta aldi berean lehiatu ziren emakumeena eta gizonena, nik bigarrenari erreparatu niolarik, nagusiki. Gizonen kasuan, 300kg azpiko kategoria zen. Hasieran hamabi taldek eman zuten izena eta zozketa bidez, 6 taldeko bi multzotan kokatu zituzten. Multzo bakoitzetik lehen hiru taldeak sailkatuko ziren abenduaren 17an ospatuko zen finalera, besteak kanporatuak geratuko zirelarik.



Nik Berriozarko sokatira taldearen ondoan egin nuen behaketa, abenduaren 4ko jardunaldian, Asteasun. Talde horrek, zeinen partaidea izan naizen ni orain dela gutxira arte, azaroaren 26ko jardunaldian emaitza onak lortu zituen, finalera sailkatzeko aukera handiak izanik. Hortaz, abenduaren 4an, lehen faseko bigarren eta azken jardunaldian, erabakiko zen ea finalera pasako ziren edo ez. Hortaz, nahiko garrantzitsua zen igande hartan, goizeko 11:30ean Berriozarko soka tira taldeak Asteasuko frontoian zeukan zita.


Deskribapenarekin hasi aurretik, behaketan harturiko paperaren inguruko argipen batzuk eman nahi ditut. Esan bezala, Berriozarko soka tira taldeko partaidea izan naiz orain arte. Hori dela eta, Metodo eta teknika kualitatiboak I ikasgaiaren behaketan gure burua aurkezteko ikusitako lau moduen artean (parte-hartzaile; parte hartzaile behatzen; behatzaile parte hartzen; behatzaile) hirugarrena hautatu nuen behatzaile izatearena, baina behar zenean, parte-hartzen edo nire kasuan, taldea laguntzen (del Val Cid, 2005). Izan ere, ni han egonda, laguntza behar zutenean (ur botilak bete, krema eman, beste taldeen emaitzak apuntatu...) hura ukatzea pentsaezina zen. Hortaz, nire lanaren eta nire asmoaren berri eman nien, oharrak jasotzen eta noizbehinka argazkiak ateratzen jardun nuen, baina taldeak behar zuenean, laguntza eskainiz.

3. DESKRIBAPENA

Lehiak berez, ordu eta erdi iraun bazuen ere, sei ordu iraun zuen behaketak, lehiako momentuaz gain, joan-etorriko bidaiak, pisaketa, tarte librea eta beroketa barnebildu zituelako. Hori dela eta, behaketaren deskribapena hiru ataletan banatuko dut: aurrekariak, lehia eta balorazioa.

3.1. AURREKARIAK

Goizeko 8:30ean jarria zegoen hitzordua herriko polikiroldegian, tiraldiak hasi baino hiru ordu lehenago. Izan ere, 9:30etatik 10:30etara sokatirako tramite kolektibo dramatikoetako bat programatua zegoen: pisaketa. Nesken taldeak 255 kilogramotan zuen bere erronka, arazo handirik gabe gainditu zuena; baina mutilek zituzten zailtasun handiagoak pisuekin. Adierazgarria da taldeak han daukan gelatxoan -zeinak kirats izugarria daukan: izerditutako arropa, zapatilak...- dagoen kortxoan pisuak banatzeko egindako papera, tatxoiez lepo baitago eta bertako azken ondorioaren arabera, 299kg pisatuko du taldeak kide bakoitzak behar duena emanaz gero.



26/11/2016

| | |
|---------------|--------|
| IOU PARRALON | 78 |
| WATER WASTE | 73 |
| OIER ETXERRIA | 68 |
| OIER ARZUARDI | 81 |
| | <hr/> |
| | 299 kg |

RESERVA ? WASTE
ENTRENAION IZU?

Hori dela eta, goizean goiz polikiroldegira iritsi bezain laster, bertako pisuan pisatzea da egin zuten lehen gauza. Federazioaren pisuan lau pertsona aldi berean sartzen dira, baina taldeak duen pisua indibiduala denez, banaka pisatu behar dira eta gero kalkuluak egin. Pisatzean, bazirudien gehienek behar baino zertxobait gutxiago pisatu zutela eta pozik zeuden, baikor. Batek zukua ere eraman zuen, zenbat pisatzen zuen ikusi behar zuelako gosari gisa "kapritxo" hori hartu ahal izateko. Behin pisua ikusita, edan egin zuen, besteei eskaini ondoren.

Baikortasun edo poztasun horrek argi uzten du zer suposatzen duen pisuak sokatiran. Tiraldi bat irabaztean bezainbeste pozten da jendea pertsonalki adostutako pisura jaistea lortzean, eta are gehiago, kolektiboki egun horretan tiratu ahal izatea ahalbidetuko dien zenbatekoa lortu dutela ikustean. Nolabait, lehen lorpena dela esan daiteke, talde guztiek lortu behar badute ere, lehiatzeko aukerak izan nahi badituzte behintzat. Hala ere, geroago ikusiko dugun bezala, nik igarotze erritu gisa ulertu dut pisaketarena behaketa honen ondorioz.

Hala ere, soka tirako kirolarien egunerokoa baldintzatzen duen zerbait dela ezin ukatuzkoa da. Asteak eta askotan hilabeteak ematen dituzte jaten dutena kontrolatuz bat, bi, hiru, lau kilo jaisteko, txapelketa egun bakarreko pisaketaren momentuan hori lortzeko. Meriendak eta hamarretakoak alboratu, bazkari eta afarietan gorputzak eskatzen duena baino gehiago jan eta azken ordutean otordu guztiak baztertzeraino, ura edatea kontrolatuta inkluso. Hori jaten eta edaten denari dagokionez, baina okerragoak ere badira: aurreko egunean sekulako beroa egin arren, berokiarekin eta arropaz lepo korrika egitea; txapelketa den herrira bidean, beroki eta mantekin tapatu eta berogailua martxan jartzea, plastiko rolloarekin gorputza inguratu eta gimnasia joatea...

Guzti horrek euren egunerokoan daukan garrantzia argi eta garbi ikusten da txapelketa eguneko eta entrenamenduetako elkarrizketetan. Egun hartan, 8:50ak aldera hartu genuen kotxea Asteasura abiatzeko eta ni ikusi eta laguntzera joandako batzuekin eta pisua kontrolatzeko beharrik izan ez zuten nesketako batekin joan nintzenez, gai horrek ez zuen presentzia handirik izan bidaiari zeharreko elkarrizketan; baina nire esperientziak esaten dit taldekide mutilen bat zihoan autoetan horretaz hitz egingo zela, tarte txiki batez bada ere. Beranduago, jadanik frontoian geundenean, berotzen hasi aurretik, horietako batek aurreko egunean janariarekin izandako komeriak kontatu zituen, etxean pisatzeko aparataturik ez zuenez, oso gutxi jan zuela, ez baitzekien nola ibiliko zen pisuz.

Hortaz, bidaiari lasai joan zen, kotxeen inguruko elkarrizketen artean, baten bat lokartu zelarik. 55

minututan, 9:45 aldera heldu ginen Asteasura. Kotxea aparkatu, jarraian frontoira joan, harmailetan hutsik zegoen txoko batean (bazter batean, hara heltzen azkenetarikoa izan baitzen gure taldea, ez bazen azkena izan) gauzak utzi (bakoitzaren motxilak arropa propioarekin eta motxila kolektiboak denentzako zapatilekin, ur botilak...) eta zuzenean joan ginen sokatiralariak urduri jartzen dituen tramitea igarotzera. Neskek, noski erraz gainditu zuten hesi hura, lauen artean 255kg baino gutxiago pisatzen baitzuten argaltzeko ahaleginik egin gabe. Mutilek, ordea, 300.5kg pisatu zuten, ordu eta erdi lehenago egindako pisaketan kontuak itxura ona zuela bazirudien arren. Esan dugunez, 300kg-koa zen txapelketa horretako muga eta haiek kilo erdiz gainditu zuten. Hala ere, margen hori da justu pisagailuaren akats posibleak direla eta onartzen den kopurua; hau da, beti 0.5kg gehiago pisa daiteke, agian pisagailuaren akatsa baita eta ez benetako pisua. Hortaz, muga-mugan egon ziren; 100 gramo gehiago emango balituzte 5-10 minutuz korrika egin beharko lukete, izerdi apur bat bota eta gutxiago pisatzeko. Dirudenez, gainera, bigarren astea zen berdina gertatzen zitzaiela, esan zutenaren arabera, aurreko astean ere hori gertatu baizitzaien.

Momentu horretan, tentsio guztia deskargatu egiten da. Hala ere, denek badakite ez dela gainditu beharreko muga bakarra, gero tiraldi gogorrak baitatoz. Azterketa garaian dagoen ikasle batek azterketa bat amaitzen duenean bezala da, lasaiago geratzen da aurretik beste zenbait azterketa dituen arren. Horregatik, nik pisaketarena pasabide edo igarotze erritu bat dela uste dut, esfortzu fase batetik beste baterako pausua ematen delako. Aste osoa gutxiago jaten eta orokorrean, pisua kontrolatzen egon ostean, pisatu eta pisuan sartu ondoren, "sufrimendu" hori atzean uzten da beste batera salto egiteko, lehiaren sufrimendua. Bigarren honetan, jadanik, ez da geratzen bigarrenaren arrastorik, trantsizio labur horretan dena utzi baita atzean (Van Gennep, 2008).

Behin muga hori pasata, bigarren esfortzu fasean, hau da, ariketa fisikoko fasean murgildu aurretik, trantsizio tarte bat eman zen, burua prestatzeko fase bat. Praktikan ondoko bigarren tabernara joatea izan zen, lehena beste taldeetako kideek bete baitzuten. Izan ere, batzuek ez zuten gosaririk hartu eta aurreko eguneko afaria ere kontrolatuta egin zuten. Bertan kafea hartu zuten, herri kirol munduaren inguruko elkarrizketak zituzten bitartean: aurreko egunean frontoian bertan egondako apustua, lehenago ezagun batek aizkoran irabazitakoa, kadeteetako ohiturak... Egun hartan lehiatuko ziren talde gehienak zeuden frontoietik hurbilen zeuden bi tabernetan. Taldeek elkarri agurtzen zioten, baina ez ziren nahasten. Bakoitzak bere txokoa hartu zuen eta han eseri zen, inguruko presentziari kasu handirik egin gabe Horrek erakusten zenbateraino den momentu hori burua berotzeko ariketa; talde bakoitza bere mugen barruan zentratzen baita, nahiz eta espazio guztiz informal baten bidez gertatu hori, barre eta algara artean.

10:30ak aldera, tiraldiak hasteko ordubete falta zela ohartzean, hartutakoa ordaindu eta frontoia joan ziren. Ordutegiek ere erritual izaera ematen zioten lehiari; izan ere, beti hasten omen ziren berotzen ordubete lehenago, antolaturiko erritual baten modura, ez ordu eta hamar minutu, ez eta 50 minutu, 60 minutu lehenago.

3.2. LEHIA

Lehia deitu diodan fase honetan, txapelketako tiraldiez gain, beroketa eta kirola egiteko arropa janzteko momentua ere sartzen dira. Azken honi, gainera, arreta berezia eskainiko diot. Aurreko fasean pisua bazen elementu garrantzitsuena, kirolarien eta sokatiraren arteko harremanean erdigunean kokatzen zen elementua, fase honetan, esan daiteke arropak eta tiratzeko beharrezko gauzek hartzen dutela paper hori, bereziki zapatilek.

Frontoiera iritsi bezain laster, gorputz osoko prestaketa hasten da: lehenik oinetan esparadrapoa eta galtzerdi lodiak jarri, gero, taldeko ekipazioko praka motza, barruko kamixeta eta ekipazioko kamixeta. Batzuek bizkarrean ere esparadrapoa jarri zuten hura babesteko. Oinetan, momentuz, zapatila-kateko lehen atalari dagokiona jarri zuten, korrika egiteko zapatila. Azkenik, soka aldakaren gainean eusteko jartzen den gerriko beltz luzea jarri zuten denek.



Jarraian frontoiaren inguruan bueltaka aritu ziren korrika, beste taldeak bezala. Hamar hamabost minutuz korrika aritu ondoren, talde guztiak, tabernan bezala, bere txokoa hartu eta elkarren artean nahastu gabe borobil bat osatuta artikulazioak berotzen aritu ziren.

Bakoitzak bere erara eta ohikoak zituzten

ariketen bidez egiten zuen. Beroketan zehar etengabeko marmarra entzuten ze frontoian, hortik gutxira entzungo ez zena. Behin oinarrizko beroketa eginik, bigarren zapatila pareta jantzi zuten, oraingoan lurrean jartzen den gomaren gainean ez irristatzeko kautxoazko zola duten zapatilak, baina zaharrak, berotzeko edo entrenatzeko erabiltzen direnak. Horrekin batera, talde gehienak gi goma ilaren gainean zegoen sokaren zatiak hartu eta berotzen hasi ziren. Horrek giroa tentsionatua zegoela erakutsi zuen. Talde batzuk "endogamikoki" aritu ziren berotzen, hau da, taldekideen artean

bi talde osatu eta elkarren aurka arituz; eta beste batzuk "exogamikoki", hots, beste talde bati berotzeko eskatuz.

Gure taldea azkena heldu zen beroketetara, 11:15ean, lehia hasi baino 15 minutu lehenago, atzelaria oraindik azken kontuak janzten baitzegoen. Hortaz, sokako izkina bat hartu eta exogamikoki hasi ziren zenbait tiraldi egiten, sexuari dagokionez era mixtoan. 11:25ean amaitu zen entrenamenduetarako denbora eta berriz ere, talde bakoitza harmailetan hartutako txokora bueltatu zen.



Berriz ere hasi zen zapatilen trafikoa. Orain, eguneko laugarren pareta tokatzen zen, norberak etxetik jantzita ekarritakoak kontuan hartzen baditugu: tiratzeko zola berezidunak, baina kasu honetan ez beroketakoak, baizik eta desgastatu gabeak, zola berri-berriarekin. Izan ere, ez dituzte zapatila berriak erosten, egiten dutena da zolari kautxoa gainetik jarri. Zapatilen segida hau arautua zegoen, baina ez zen araua behin eta berriz errepikatzen. Hau da, bakoitzak jakin beharra zuen zein zen bere berotzeko eta tiratzeko zapatila; edo behintzat berotzekoa bai, eta tiratzekoa momentuan banatzen zen. Baina norberaren egin beharra zen tramite guztie horiek zorrotz jarraitzea. Zentzu horretan, sakrilegio handia izan zitekeen tiratzeko zapatila berriak txapelketako tiraldiak hasi aurreko 10 minutuko beroketan erabiltzea; eta baita txapelketako tiraldietan entrenamenduetako zapatila erabiliak jartzea. Bien artean, askotan ez zegoen ezberdintasun handirik, baina errespetatu beharreko araua zen.

Ia 11:30ak zirenean, lehen tiraldian egokitu zitzairen talde guztiak ilaran jarri ziren eta epaileek zapatilen zolak erakutsarazi zieten kirolari guztiei, esku oihal bat gainetik pasaz ea zapatila gomara itsasteko likidorik zeukaten ikusteko. Behin zapatiletan legez kanpoko ezer ez zeukatela konprobatzean eta alde bat edo bestea aukeratzeko zozketak egitean, hasi ziren lehen tiraldiak. Hasieran, mutilen txapelketan sei taldeko bi multzo zeudela esan badut ere, egun hartan bi taldek ez zuten bere burua aurkeztu eta beraz, bost taldeko bi multzo egin ziren. Hortaz, gure mutilek lau tiraldi zituzten aurretik.

Talde bakoitzaren aurka bi tiraldi egiten dira, bata alde batean eta bestea bestean. Lehen taldearen aurka, Iruñeko Txantrea auzoko taldea, biak irabazi zituzten; lehena tiraldi luze baten ondoren eta

asko sufrututa eta bigarrena erraz. Bigarren taldearen aurka bata irabazi eta bestea galdu zuten. Hirugarren taldearen aurrean, biak galdu zituzten, baina hiru minututik gorako tiraldi gogorren ondoren. Laugarrenean, berriz ere, berdinketa. Tiratzen dauden bitartean, kirolariek zenbait oihu egiten dituzte, berez, ezkerrarekin edo eskuinarekin eman beharreko pausuak markatu eta denek batera emateko. Hala ere, ez direnez nolana hiko oihuak, argi dago taldea kohesionatzea eta aurkaria bere onetik ateratzea, intimidatzea ere bilatzen dutela. Tiraldi baten eta bestearen artean dauden atseden tarteetan, goma hizketagai zuten denek; alde batean gehiago eusten omen zuen bestean baino. Badirudi denek horri eusten ziotela haien porrota justifikatzeko.

3.3. BALORAZIOA

Egin beharrekoa egin zutenean, kalkuluak egiten aritu ziren; bi egunetan lortutako puntuak batzen eta berdina egiten beste taldeen puntuekin. Ondorioa izan zen, multzoan laugarren sailkatu zirela eta ez zutela finalean lehiatzeko plaza lortu. Ongi egindakoak eta akatsak komentatzen aritu ziren arropaz aldatzen ziren bitartean, eta finalera pasatzeko aukera emango zien zenbait tiraldi gogoratzen, haiek irabaziz gero, helburua lortuko baitzuten.

Hala ere, ez zirudien oso goibel edo burumakur zeudenik. Izan ere, nahiko talde gaztea zen, gainontzekoak baino askoz gazteagoa eta horrek lasaitasuna ematen die Berriozarko sokatira taldekoei. 13:00ak inguru ziren jadanik eta bazkaltzera garaiz iristeko, arropaz azkar aldatu, dena jaso eta kotxeetara joan ziren, beste taldeak agurtzeko astirik galdu gabe. Bueltan hizketagaien artean zeuden goma batean alde batetik bestera zeuden desorekak, hobetzeko kontuak, ordutik aurrera lantzekoak eta bestelako kontu batzuk, emaitzaren inguruan. 14:20ean Berriozarrera iritsi bezain laister bakoitzak bere etxerako bidea hartu zuten, hurrengo egunera arte, entrenamendua baitzeukaten.

4. ONDORIOAK

Egun osoan zehar, hiru fase bereizi ditugu eta esan daiteke fase bakoitzak elementu sakratu moduko bat duela bere inguruan, dirurik ematen ez duen lehia horri zentzu bat ematen diona.

Lehen fasean ez bairik gabe pisua da. Txapelketaren aurrekaria gure behaketan goizean hasi dira, baina asteak iraun ditzake pisuaren inguruko gorabeherak. Pisua da sokatiralariak kirol horri lotzen dituen. Hortaz hitz egiten dute euren kirola besteei aurkeztean, edo zer moduz dabilzan galdetzen badiete pisuarekin loturiko zerbait erantzungo dute askok: "oso ongi, baina gogorra da jaten duguna kontrolatzea...". Gainera, bi dimentsio ditu elementu horrek. Dimentsio pertsonala, entrenatzaileak eskatu diguna edo denen artean adostutakoa argaltzeko erronka lortzeari lotuta, autoerrealizazioa

ekar dezakeelarik; eta dimentsio kolektiboa, esfortzu hori taldeak ahalik eta baldintza onenetan lehiatzeko egiten baita. Hortaz, azken helburua kolektiboa den arren, ondorioak kolektiboak izateaz gain, partikularrak ere badira. Gainera, noizean behin, taldean giro txarra sor dezake auzi horrek, norbait udan -denboraldia eteten baita- asko loditu bada, edo asko argaltzeari uko egiten badio, edo pisu banaketetan desorekak badaude... Baina normalean elkertasunean ematen den prozesu bat da, batek ezin duenean besteari laguntzen diolarik, eta alderantziz.

Bigarren faseko elementu adierazgarria arroparena da: esparadrakoak, galtzerdiak, gerrikoa, eskuetan botatzen den magnesioa, baina batez ere, zapatilak. Guzti hori noiz eta nola jarri behar den goitik behera arautua dago era inplizitu batean, idatzita egon gabe. Elementu guztiekin gertatzen den arren, kasu nabariena zapatilena da. Momentu bakoitzaren arabera, zapatila bat jarri beharra dago, ez badugu taldeak gaizki begiratzea nahi: lehen beroketak korrika egitekoak, goma gaineko beroketan tiratzeko zapatila desgastatuak, txapelketako tiraldietan tiratzeko zapatila berriak... Behaketa egin nuen egunean bakarrik tiratzeko bi zapatila jarri zituzten, berotzean pare bat eta tiraldi ofizialetan bestea; baina batzuetan, aurkariaren arabera zapatila zahar edo berriak aukeratzen egoterraino iritsi dira (aurkariak oso ona bada, ez du merezi zapatilak desgastatzea eta hobe txarrak jartzea; irabazteko aukerak badaude, onak jarri) tiraldi batetik bestera etengabe aldatuz, edota zapatila pare berri bat oso garrantzitsua den tiraldi bakar baterako gordetzeraino.

Hirugarren etaparen deskribapenean arreta berezirik jarri ez dudana arren, esan daiteke, kirol gehienetan lehiaren ondoreneko tartean -nik balorazio fase izendatu dudana-, emaitza justifikatzeko aitzakiak kokatzen direla erdigunean. Goma irristakorra egotea, aurkariak baldintza hobeetan egotea, guk akats txiki bat egin izana... Horren funtzioa hau izan daiteke: kirol horrekiko lotura berretsi eta hobetzen jarraitzeko, hau da, lotura estutzen jarraitzeko hautua egitea.

Hortaz, ikusi dugu nola kanpotik jarduera soil bat eman dezakeen kirol baten atzean, zenbait elementu berezi agertzen diren, pertsonak jarduera horrekiko duten lotura hobe ulertzen laguntzen digutenak. Kasu honetan, sokatirarekin egin dugu, baina oso azaletik, behaketa bakar baten bidez, eta elementu guztiak kontuan hartu gabe. Hala ere, horren barruan ezkutuan dagoen barne munduaren adierazpen txiki bat erakustea lortu izana espero dut.

5. BIBLIOGRAFIA

Del Val Cid, Consuelo eta Gutiérrez Brito, Jesus. 2005. *Prácticas para la comprensión de la realidad social*. Mc Graw Hill

Van Gennep, Arnold. 2008 [1908]. *Los ritos de paso*. 2. El paso material, 30-44. Barcelona: Barral